

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako beste sei titulu egokitu ditu lan merkatuaren gaur egungo premietara

Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriarekin, ostalaritzarekin eta industria mantentzearekin daude lotuta

Jueves, 29 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako sei tituluren egitura eta curriculum onetsi ditu, horietatik hiru erdi-mailakoak dira eta beste hiru goi-mailakoak, lan merkatuko premia berrietara egokitzeko. 2011-2012 ikasturte honetan ezarri diren titulazio berriak garrantzi estrategikoa eta ekonomikoa duten sektoreekin, esate baterako, nekazaritzako eta nekazaritzako elikaduren industriarekin, eta enplegua sortzen dutenekin daude lotuta, hau da, ostalaritza eta industria mantentzearekin.

Horietatik bat, [Nekazaritza Ekologikoaren Ekoizpeneko teknikariaren](#) titulua berria da. Gainerako bostek lehendik zeudenak ordezkatu dituzte: [Ostalaritza Zerbitzuetako teknikaria](#), [Lorezaintzako teknikaria](#), [Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta Goi-mailako teknikaria](#), [Elikagaien Industriako Prozesuetan eta Kalitatean Goi-mailako teknikaria](#) eta [Instalazo Termikoen eta Likidoen Mantentze-lanetako Goi-mailako teknikaria](#).

Sei titulu horiek eta 2008tik onetsi diren [beste 24k](#) ([horietatik 5 aurten](#)) osatzen dute zati batean Nafarroan Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazional berria ezartzeko prozesua. Besteak beste, LOGSEren ondorioz (1990) sortu diren LHko tituluak azken urteetan lanbide ugariaren bilakaerari hobeto erantzuten dieten beste batzuek ordezkatzera eragin d.

Titulazioak Nafarroako enpresen sarera doitzeko, lurraldeko azterlanak egin dira inguru emankorraren inguruan eta eskualde bakoitzeko lanbide heziketaren eskariak aztertu dira. Azterlan horiek hainbat enpresa, erakunde eta elkareren laguntzarekin egin dira, estatuan eta nazioartean egin diren antzeko beste batzuen bidez osatu dira, eta titulu bakoitzaren curriculum diseinatzeke balio izan dute.

Gogorarazi behar da curriculum horiek hainbat berrikuntza dituztela, adibidez, goi-mailako ziklo guztietan ingelesa gehitu da ikaskuntza horiek nazioartera zabaldu ahal izateko. Halaber, lanbide moduluak trebakuntza unitatetan antolatu dira. Horrek ikastetxeei aukera ematen die trebakuntza jarraitua eskaintzeko eta ikasleei trebakuntza unitateak gaindituta moduluak ziurtatzeko.

Aurten, 2011-2012 ikasturtean, Nafarroan 79 titulu eskainiko dira Lanbide Heziketan. Horietatik 47 goi-mailakoak dira eta 32 erdi-mailakoak. Guztira 6.619 ikaslek egingo dituzte ikasketa horiek.